

Zein paper izan du Mendebaldeak errefuxiatuen herrietan?

Azken hilabeteotan errefuxiatuen krisi larria bizi du Europak. Airez, baina bereziki lurrez nahiz itsasoz, immigrante asko ari dira Europara iristeko ahaleginean. Hala ere, sarritan ez da jakitera ematen zergatik egiten duten ihes sorterritik. Herrialdeotan oso baldintza gogorretan bizi dira, eta Mendebaldeko potentziek badute zerikusirik egoera horrekin.

| MARTIN MENDIZABAL GARAI |

GINEBRAKO KONBENTZIOAREN arabera errefuxiatua da “arrazaz, erlijio, nazionalitate, talde sozial edo iritzi politikoengatik jazarria sentitzen den oro eta horren ondorioz bere herrialdeetik kanpo aurkitzen dena”. Baina zergatik ari gara hizketan 2. Mundu Gerratik Europak jasan duen errefuxiatu krisi latzenaz? Asilo eskaera gehien egiten dituzten siriarrak, libiarak, eritrearrak, irakiar eta afganistarren egoera aztertu eta Mendebaldeak herrialde horietan izandako esku hartzea erreparasatuko dugu.

Siriatik dator errefuxiatu gehien

Siria dute gatazka gune horietan Europara iristen diren etorkin gehienentzat jatorrizko herrialdea. Sirian 2011. urtean gerra hasi zenetik 310.000 hildako izan dira, horietatik 100.000 zibil. Ondorioz ia 4 milioi pertsonak herrialdea utzi behar izan dute. Immigranteak baliabide urriak dituzten pertsonak direnla uste izaten den arren, kasu honetan klase ertaineko lagun askok utzi dute beraien herrialdea.

Sirian 250.000 pertsona setio-egoeran bizi dira eta milaka atxilotu edo desagertu daude –horien artean Antonio Pampliega, *Berriako* kolaboratzailea–.

Zenbait iturriren arabera, geroz eta argiago dago Estatu Islamikoaren atzean Europar Batasuna eta AEBen finantziazioa dagoela. Gainera Bas-

sad al Assad Siriako presidentearen oposizioko hainbat miliziek armak eta azpiegiturak jaso dituzte, bai Turkiatik –Europa eta Ekialde Hurbileko zubia– bai Arabia Saudi edota Katarretik.

Amnistia Internazionalak berriki emandako datuen arabera, arma esportazioen rankingean AEBen, Txina eta Errusiaren atzetik Europar Batasuneko hainbat herrialde daude: Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Espainia besteak beste. Herrialde germaniarraren kasuan, 2014an arma esportazioen aurrekontua bikoiztu egin zuen, 2013an bideratutako 757 milioi dolarretik 1.500 milioitara igaro zen.

Arma esportazioen rankingean AEBen, Txinaren eta Errusiaren atzetik Europar Batasuneko hainbat herrialde daude

Libia, NATOren interbentziotik txikituta

Libia Europara iritsi nahidutenentzako azken portua da, baita Afrikako herrialde gehienetatik iristen diren topalekua ere. Kasu batzuetan Libiara iritsi baino lehen bi urtetik gorako bidaia egin ondoren etorkinek oso

egoera latzak jasan behar dituzte: kartzelaratzeak –batzuk bertan hiltzen dira–, eta mafien bahiketak, batez ere azal beltzeko lagunak. 2011. urtean, Frantzia eta Erresuma Batuak sustatu zuten NATOren interbentzioaren ondorioz eta Gadafi, Libiako presidentea hil zutenetik herrialdeak ez du bururik altxa: Estatu Islamikoari atxikita doazen takfiri taldeek indar handia hartu dute Libian, baita etorkinekin negozioa egiten duten giza trafikatzailleek ere. Gertaera horiek kaos egoera iraunkor batean utzi dute herrialdea, eta edozein momentutan NATOren beste interbentzio militar bat justifikatu lezakete.

Libia petrolio erreserba handienetakoa duen herrialdea da, munduko petrolioaren %3,5aren jabe da, AEBen bikoitza. Horrez gain, gasa ere badauka. Horregatik, herrialdeak interes geopolitiko handiak dauzka, Libia eta Italia batzen dituen Greestream gas hodia, adibidez. Libia erdialdeko Afrikara iristeko atea da: Frantziaren eraginpean dauden eta petrolio eta uranioa dauzkaten Chad eta Nigerreko herrialdeekin muga egiten du, eta horrek oso erakargarri egiten du.

Gadafiren garaian –NATOren interbentzioa baino lehen– Libiari “Afrikako Suitza” deitzen zitzaion. Libiak Afrikan Giza Garapenaren Indizerik altuena zeukan: Munduko

Osasun Erakundearen arabera herri-tar guztiek –errefuxiatuek barne– osasuna dohain zeukaten. Gainera hezkuntza dohainik zen eta Afrikako alfabetizatze tasa handiena zeukan. Gaur egun milioi erdi barne errefuxiatu dauzka, eta Afrikako herrialde-rik arriskutsuenetakoa da.

Eritrea: errefuxiatu asko, informazio gutxi

Italiaren kolonia izan zen Eritreak 1993. urtean lortu zuen independentzia. Afrikako herririk isolatuenetakoa da. Edonola ere, herrialdearen hegoaldean Babel Mandebeko itsasartearen jabe da, Indiako ozeanoa eta Mediterraneoa –Itsaso Gorria eta Suezeko kanalaren bitartez– batzen dituen lotura estrategikoa.

Siriarren atzetik Europan asilo eskaera gehien egiten dituzte eritrearrak. Herrialdearen inguruko oso informazio gutxi dago eta komunikabideek ikuspuntu desberdinak jasozten dituzte: BBC berriki zabaldu duen erreportaje batean Eritreako askatasun eskasen inguruan mintzo da: zerbitzu militarra urte askoan luzatzen da eta kartzela ilegalak existitzen dira.

Aitzitik, HispanTVk beste ikuspegi eman du: Etiopiaren aurkako gerraren ondoren –1998 eta 2000. urtean artean– herrialdea lur jota geratu zen. Ekonomia asko handitzen ari da, baina hala ere NBERen santzioak jasaten ditu eta horrek zailtasun asko ekarri dizkio. Wikileaksek 2009 urtean argitaratu zituen dokumentuen arabera, AEBek agindu exekutiboa onartu zuten Eritrearen aurka, herrialdea estutu egin behar dela esanez.

Iraken AEBek sorrarazitako gerrak amaierarik ez

2003an AEBek Iraken aurka hasi zuten gerrak milioi erdi hildako utzi zituen, eta 1,7 bilioiko kostua izan zuen Nazioarteko Ikasketen Watson Institutuaren txostenaren arabera. Barack Obama AEBetako presidentek 2010ean operazio militarren amaiera iragarri arren, inbasioko urteetako politika bera darama egun. 2015ean Estatu Islamikoaren aurrekontua 2.250 milioi dolarretakoa zen. Baina nola finantzatzen da taldea?

Zenbait adituren arabera Estatu



Gerraren ondorioz ia lau milioi lagunek egin dute ihes Siriatic.

Islamikoak Irak iparraldeko hainbat petrolio putzu kontrolatzen ditu; egunero hiru milioi dolar irabazten ditu bertatik. Dirudienez, Turkiak kolaboratzen du petrolioia Europara eramaten, eta Irakeko Europar Batasuneko enbaxadoreak esan du Batasuneko zenbait herrialdek Estatu Islamikoari petrolioia erosten diotela. Bestalde, Estatu Islamikoak Irakeko gerran parte hartu zuten Europar Batasuneko herrialdeek utzitako armak ditu.

NATOn interbentzioaren ondorioz Libiak ez du bururik altxa, eta kaos egoera iraunkorrak beste interbentzio bat justifika lezake edozein momentutan

OIM Migrazioen Nazioarteko Erakundearen arabera Estatu Islamikoak Iraken 2014ko ekainean egin zuen lehen ofentsibaren ondorioz hiru milioi lagunek alde egin behar izan zuten. Zenbait aurreikuspenek diote zifra hori hamar milioi pertso-

natara iritsiko dela, herrialdearen populazioaren herena. Soilik abuztuan Irakeko gatazkan 1.325 hildako izan dira eta 1.800 zauritu.

Tortura sistematikoa da Iraken Geneva International Centre for Justice (GICJ) erakundeak egindako txostenaren arabera. Praktika hori ez dute soilik indar publikoek erabiltzen, baita atxilotetak eta bahiketak egiten dituzten taldeek ere.

Afganistango balio geoekonomikoa

AEBek Afganistanekin duen erlazio geopolitikoa mantendu nahi du. Estrategikoki eta militarki garrantzi handia duen herrialdea da. Afganistanek bilioi bat dolarreko balioa duten mineralak dauzka. Nahiz eta tropa amerikarrak herrialdetik alde egin, Afganistanen BPGaren %90 kanpoko finantzaziotik dator, gehiena Estatu Batuetatik.

Herrialdearen %20 muturreko pobrezian bizi da eta %40 langabezian dago. Talibanek Afganistanen zati handia kontrolatzen jarraitzen dute eta atxiloteta arbitrarioak jasozten dira. Amnistia Internazionalak adierazpen askatasunaren aurkako urratzeak salatu ditu, baita bermerik gabeko epaiketetan agindutako heriotza zigorrak ere. ■